

'Loreak' filmeko protagonistak izan dira sagardo berria dastatzen lehenak

by **Estitxu Zabala** on 2015/01/14 in **AISIA**

Txotx denboraldiaren irekiera ofiziala egin dute Itziar Ituño, Nagore Aranburu eta Itziar Aizpuru aktoreek, Astigarragako Bereziartua sagardotegian.



Itziar Aizpuru, Itziar Ituño eta Nagore Aranburu aktoreak, aurtengo sagardo berriarekin. (Argazkia: Estitxu Zabala)

Abian da 2015eko txotx denboraldia. *Loreak* filmeko hiru aktore nagusiek egin dute urteko lehen txotx ofiziala, "hau da aurtengo sagardo berria" esaldi ezaguna bota ostean. Pozik eta hunkituta agertu dira Itziar Ituño, Nagore Aranburu eta Itziar Aizpuru Astigarragako Bereziartua sagardotegian, eta lehenengoak malkoren bat ere lehortu behar izan du. Pelikulako zuzendari Jon Garaño eta Joxemari Goenaga donostiarrak ere ekitaldian egon dira, irribarrea ahoan zutela. "Aipatu dira badirela 22 urte txotx irekiera egiten dela, baina gonbidatu gehienak gizonak izan dira. Bazan garaia lore sorta bat jartzeko, batzuk pixka bat ximelagoak gauden arren", aipatu du Aizpuru barre artean.

Astigarragako kultur etxean bildu dira gaurko protagonista guztiak, eguerdian, ekitaldiari hasiera emateko. Bertan, aurtengo sagardoaren nondik norakoak eman ditu Joxe Angel Goñi Sagarduneko presidentek: "Sagardo edan erraza da, aromatikoa, txinpartatsua, iazkoa baino leunagoa, eta edan ostean ahoan sentipen oso ona uzten duena". Aktoreei dagokienean, hiruek onartu dute sagardoazaleak direla, eta bakoitzak bere esperientziaren berri eman du. Ituñori euskaltegikoekin egindako bazkariak etorri zaizkio gogora: "Euskaldun berria naiz eta sagardoak asko lagundu dit mingaina askatzen eta lotsa galtzen. Orain, euskarari eta zineari esker itzuli naiz txotx egitera". Aizpuru, bere aldetik, sagardoa gogoko duen arren, sekula ez dela sagardotegi batean egon onartu du: "Espero dezagun *Loreaken* arrakasta berdina edo gehiago izatea aurtengo sagardoak". Aranburuk sagardoa egiteko moduan *Loreak* egiteko ere talde-lana oso garrantzitsua izan dela azpimarratu du; eta izugarri eskertu du txotx denboraldia irekitzeko aukera izatea guztien partez: "Joxemari eta Jon zuzendariak pelikula gaur egingo balute, *Loreak* ordeztu *Sagarrrak* izango litzateke, eta desiatzen nago aurtengo sagardoa dastatzeko".

Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus arduratu dira txotx irekierari bertsuak jartzeaz, eta Arizkungo sagar dantza egin dute hainbat dantzarik, sagardotegira sartu aurretik, beritasun moduan.



(Argazkia: Estitxu Zabala)



(Argazkia: Estitxu Zabala)



(Argazkia: Estitxu Zabala)



(Argazkia: Estitxu Zabala)



(Argazkia: Estitxu Zabala)



(Argazkia: Estitxu Zabala)



(Argazkia: Estitxu Zabala)



(Argazkia: Estitxu Zabala)



(Argazkia: Estitxu Zabala)

◀ Txillardegiren lana digitalizatu eta hedatzeko lankidetzako hitzarmen bat sinatu dute

Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name

Email Not published

Website



CAPTCHA Code *

Post It

Zorionak Donostia!



Donostiako Udala



jatetxeak,
pintxo tabernak,
sagardotegiak,
erretegiak...

Bilatu zure inguruko ostatua

Ostatua...

Bilatu